

HERNANI kronika

2003 urtea
Irailak 17
Asteazkena
Alea: 878
www.kronika.net



PROTEKZIOKO ETXEAK SAGASTIAN

- 340 etxe denera
- 170 hernaniarrentzat
- 80 etxe sozialak
- Etxe batzuk alkilerrean
- Giltza jaso, 4 urte barru.

Sagastiako Protekzioko etxeak trambidearen gainkaldean dijoaz. Orain lurrik hartzeko tramiteta ari da Udalak.

Sagastian dijoazen Protekzioko 340 etxeak 4 urte barru emanda egotea espero du Rekondok

■ Urbanizazio proiektuak aurkezteko epea zabalik dago eta lur-jabeekin hizketan ari da Udalak ■ Bestalde, Udaletxeko kalendario laborala aldatzea erabaki zen atzoko Gobernu Batzordean.

SAGASTIAKO bizkarrean Babes Ofizialeko 340 etxebizitza egiteko proiektuaren tramiteak aurrera dijoaz eta Joxan Rekondo Alkateak adierazi du legislatura bukaerarako etxe bakoitzia bere jaberari entregatuta egotea espero duela. Berez, Jaurlitzaren planak bi-hiru urte barru giltzak ematea ikusten du, baina, horrelako proiektu haundietan gerta litzkeen gorabeherak kontuan izanda, Joxan Rekondo uste du hobe dela lau urteko epearekin jokatzea.

Gaur egunean, Udal proiektu horren bi alderditan ari da lanean: batetik, urbanizazio proiektuak egiteko lehiaketa zabalik dago, eta

bestetik, terrenoak lortzen ari da Udalak. Joxan Rekondo aurreratu duenez, lur-jaberik haundienarekin hitzarmena egiteko bidea oso aurreratuta dauka Udalak, eta gainerako lur-zatiak esproprietu egindo ditu.

Urbanizazio proiektua eta lurra lortuta, etxeen proiektua etorriko dira hurrena. Tramite horiek denak urtebete inguru iraun lezakete, eta orduan hasiko dira lanak. Prozesu horren barruan etxeen zozketa etorriko da.

Sagastiako etxeak egiteko aurreneko konbenioa 1999an firmatu zen. Gero, Mertxe Etxeberriaren korporazioak hura atzera bota eta konbenio berri bat firmatu zuen, eta hori

da orain martxan dijoana. Konbenio horren arabera, Sagastian protekzioko 340 etxe egingo dira, eta 170 hernaniarrentzat izango dira. 340tik 80 sozialak dira (eren-ta baju-enak dituztenentzat). Etxe batzuk alkilerrekoak izango dira, baina, konbenioak ez du esaten zenbat.

Udal lan egutegia aldatu. Bestalde, atzo arratsaldean Gobernu Batzordea izan zen eta erabaki zen puntuatko bat da Udaletxeko kalendario laborala aldatzea. Langile Komiteak proposatuta, orain dela 3 urte Plenoak onartu zuen urriak 12 (Hispanitatearen eguna) eta abenduak 6 (Espainiako Konstituzioaren eguna) lan egun izatea, eta abenduaren 3 (Euskeraren eguna), jai eguna izatea. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak erabaki hori atzera bota du eta gogora arazi du Udalak herriko bertako bi jai egun finkatzeko duela agintea. Tribunalak epaiketa gastuak ordaintzera behartu du Udalak.

Gobernu talde berriaren ustez, "aurreko udalbatzak jai egun izendatutako abenduaren 3ak lan egun izan behar du udal administrazioan, gehienentzat lan egun den egun horretan herriarrek ohiko udal zerbitzuak izan dituzten". Beraz abenduaren 3an, Musika Eskola, Euskaltegia eta Udal haurtzaindegia zabalik egongo dira. □

Aranoko ostatua subastara gaur

ARANOKO ostatua (*kontsejua*) subastan jarriko du gaur Aranoko Udalak. Ostatuak berekin du etxebizitza ere eta gaur erabakiko da zeinek hartuko dituen urtebeteko taberna eta biak. Enkantea 6.000 eurotik hasiko da eta hortik gora gehiena eskaintzen duenak hartuko du. Subasta Aranon bertan egingo da, gaur, 17:00etan. □

Oskar Matute (IU-EB) gaur Biterin

OSKAR Matute Ezker Batuako buruzagi eta parlamentariak Hernanin hitz egingo du gaur, berta-ko EBk antolatutako hitzaldian. Datorren astean Ibarretxek elkarbizitzarako plana aurkeztuko du Jaurlitzaren izenean eta eztabaida hori da hitzaldiaren gaia: *Ibarretxeren plana, konponbidea euskal gatazkarentzat?*

Ezker Batuaren ustez, euskal politikagintzak oraindik gehiago berotuko da Ibarretxeren plana aurkezten denean. Hernaniko Ezker Batuak eztabaida horretan sakondu nahi du, alderdiaren proposamena azalduta: euskal ezker federalistaren proposamena, hain zuzen ere. Ezker Batuak herriarrak hitzaldian parte hartzera gonbidatu ditu. Hitzaldia, 19:30-ean Biterin. □

Ezker Abertzaleak Bilbon egingo den manifestaziora joateko deitu du

EZKER Abertzaleak manifestazioa deitu du larunbaterako Bilbon, *NO Apartheid. Autodeterminazioa* lemarekin. Hernaniko Ezker Abertzaleak joateko deia egin du eta autobusak jarri ditu. Txartelak Garin eta Txili taberne-tan daude. Autobusa 15:00etan aterako da eta ostrirala da txartelak hartzeko azkena. □

OPEL Auto Hernani

Orain helbide berrian

ZINKO-ENEA

Karrozeri zerbitzua:
Akarregi 25

LAND ROVER VOLVO

GALARRETA

Jauregi bailara 76

PLAY

HOSPITALA

Salmenta Tailerrak:
- mekanikoa
- elektrizitatea
Finantziazioa

OPEL Auto Hernani - Jauregi bailara 76 - Tel.: 943 55 25 46 - 943 55 77 25

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

03-04 IKASTURTEA:
EUSKALDUNTZE,
ALFABETATZE eta EGA.
Maila guztiak. Ikastaro bereziak
gurasoentzat.

Erritmoak: Erritmo aukera zabalak.

Matrikula: Irailaren 8tik 26ra.

Diru-laguntzak ere badauzkagu.
16 urtez gorakoentzat.

Galde ezazu euskaltegian
(Karobieta 63, anbulatorio zaharrean!).
e-mail: euskaltegi@hernani.net

943 331896

HERNANIKO UDALA



J.Dorronsoro Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Bertan egindako
kalitatezko ogia



Asto karrera Portuko festetako sinboloa bihurtu da, aurten 52garrena izango da.

Portuko asto karrera larunbatean da, eta egun osoko jaia antolatu dute

■ Portuko festetan, arazo batzuk medio, ez zen asto lasterketari izan ■ Goizetik hasita ume jolasak, poteoa, bazkaria eta asto lasterketa izango dira Portun.

PONTUN ez dira aurten asto lasterketari gabe geratuko. Izan ere, San Juan Txikietan urtero bezala asto lasterketa egitekoak ziren, baina, jai batzordearekin zer ikusirk ez duten arazoak medio, asto lasterketa bertan behera geratu zen. Hori dela eta, egun osorako festa antolatu dute larunbat

honetarako eta aurten izatekoan zen 52garren asto lasterketa ere programan sartu dute.

Kamixeta eta zapia jantzita
Goizeko 11:00etan hasiko da festa, ume jolasakin eta eguerdi de partean, 13:00etan auzo-poteoari ekingo diote. 14:30etarako bazkaria antolatu dute

eta antolatzaleek eskatu dute bazkarira asto lasterketako kamixetarekin eta Portuko jaietako zapiarekin azaltzeko. Asto Lasterketa arratsaldeko 18:30etan izango da eta egun osoan Oihane, Itsaso eta Leire trikitilariak arituko dira soinu jotzen, eta suzirien zalaparta ere ez da faltako. □

Astigarragako Kultur Etxeko ikastaroetan apuntatzeko matrikula irekita dago

■ Besteak beste automakillaje ikastaroa, bisuteria eta Qi Gong daude aukeran.

ASTIGARRAGAKO Kultur Etxeak bertako ikastaroetan izena emateko epea ireki du aste honetan. Guztira 8 ikastaro daude aukeran: eskulanak, haurrentzako antzerkia, egurtaila (3 maila diferente-

tan), Qi Gong, Dantza Garai-kidea, Automakillajea, Bisuteria eta Altzariak berritzenten ikasteko ikastaroa. Automakillajea, bisuteria eta Qi Gong, Hernanin ez dauden ikastaroak dira. Izena ema-

teko bi aukera daude, bata 943-335064 telefonora deitzea da eta bestea Astigarragako Kultur Etxera jotzea: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroak urrian hasiko dira. □

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK
Ezkerro
Fruituak
Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75
Orain helbide berrian gaituzu:
Antziola 5

AMEGAR
Etxe tresnak Altzariak
Sukalde altzariak
Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

JTXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobil: 653 74 10 97
20120 Hernani

Aisialdiko begirale ikastaroa Andoainen, urrian hasita

- Izena emateko epea irailaren 22an bukatzen da
- Hernani eta inguruko herrikoentzat da ikastaroa.

AISIALDIKO begirale ikastaroa Andoainen izango da aurten, eta bertan apuntatu litzke 18 urtetik gora izan, eta euskeraz dakiten guztiak. Ikastaroak Urtxintxa taldeak emango ditu eta laguntzen bost herritako udalak aritu dira: Hernani, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbil. Ikastaroa bost herri horietara zuzenduta dago.

Ikastaroa 200 orduko da, urritik maiatza bitarte emango

da eta larunbatetan izango dira klaseak, goizez eta arratsaldez.

Astelehenerako izena emana
Begirale ikastaroan apuntatzeko azken eguna astelehena da, irailak 22. Izen ematea Hernaniko Udaletxean egin liteke, Euskara Sailean. Prezia: 130 euro Hernani eta ikastaroa antolatzen ibili diren bost herrientzat eta 260 euro gainerakoentzat. Informazio gehiago: 943 337029. □

■ HITZ BITAN

✓ KALE HEZITZAILEAK

Saskibaloi torneoa gaur, Gay-Murren. Kale Hezitzaleek Iraila Ekintzez blai programa martxan jarri dute laugarraren urtez eta gaurko 3x3 saskibaloi torneoa antolatu dute. Nahi duen guztiarentzat libre da eta Gay-Murren jokatuo da, 17:00etan. Bihar futbito torneoa jokatuko dute leku eta ordu berean, eta datorren astetik aurrera ekintza gehiago izango dira.

✓ GASTEIZEKO UNIBERTSITATERA AUTOBUSA

Autobusaren ibilbidea osatzen ari dira. Gasteizko unibertsitatera joateko autobusa antolatzen ari dira hainbat ikasle eta autobusa N-1aren ondoko herriean geratzeko zen printzipioz. Baina bilerak egin eta gero Donostialdeko jende askok adierazi du autobusa erabiliko lukeela eta ondorioz ibilbidea zabaltzeko aukerak aztertzen ari dira. Autobusa erabiliko luken jendeari dei egiten diote telefono honetara deitzeko: 943-670383. □

✓ KUTXAKO IKASTAROAK

Informatika ikastaroetan izena ematea. Kutxak ikastaroak antolatzen ditu herri ezberdinan. Hernanin alde batetik, Aula Gaztekutxa programaren barruan, 16-29 urte bitartekoentzat ikastaroak antolatu ditu: Flash programarekin web orriak animatzeko ikastaroa, Photoshop programarekin irudiak tratatzeko ikastaroa eta web orrien edizioa Dreamweaver programarekin. 29 urtetik gorakoentzat, Aula Kutxa programaren barruan, antolatu dituen ikastaroak dira: Windows eta Word erabiltzeko ikastaroa, Photoshop programarekin irudiak tratatzeko ikastaroa eta Interneta eta korreo elektronikoa erabiltzeko ikastaroa. Informazio gehiago: 943-440863. □

✓ BITERIKO IKASTAROAK

Plazak libre. Oraindik ere plazak libre daude Biteriko ikastaro hauetan: haurrentzako plastika, helduentzako pintura (hasiera eta sakontzea), zeramika, ahots teknika, saloiko dantza sakontzea, antzerkia eta harri taila eta eskultura. Ikastaro hauetan izen ematen dutenak iritsi ahala hartuko dute lekua. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa
☎ 943 557738
- Gauzez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32
☎ 943 361556

IRAGARKI MERKEAK

26 urteko neska, goizetan lan egiteko eskaintzen da. Currikulum zabala, lan ezberdinan ariko litzake. ☎: 686 907 827 - 943 55 36 85 (Argitze)

HERNANI HIZKUNTZAK - ENGLISH
Gure Ingelesetxea
Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul, Jose Luis eta Unai Cambridge FCE edo Advanced azterketa gainditzeagatik.
MATRIKULA ZABALIK
Deitu Alan / Joe ☎ 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1